

ONARRI ESPEZIFIKOAK, ZEINEN BIDEZ ARAUTZEN BAITA ARABAKO BIDEAK SA SOZINETATEAN USTIAPEN ADMINISTRARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA

(deialdiaren kodea: 202501arabat)

LEHENENGO ONARRIA.- LANPOSTUAREN ONARRIZKO EGINKIZUNAK:

Sozietatearen zuzendaritzaren mende egongo da hierarkikoki, eta honako eginkizun hauetakoren bat bete ahal izango du:

- Bidesariak eta horiekin lotutako arloak kobratzeko lanak eta ustiapenak kudeatzea.
- Telefono bidezko arreta, aurrez aurrekoa eta telematikoa.
- Agiriak jaso eta berrikustea.
- Administrazio egitekoak eremu orokorretan eta kudeaketa-eremuetan.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dizkioten gainerako egiteko guztiak, lanpostuari eta titulazioari lotuta egonez gero.

BIGARREN ONARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte posta elektronikoz helbide honetara: **202501arabat@qualisconsultores.es**

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 9ra arte izango da, egun hori barne.

HIRUGARREN ONARRIA.- HAUTAKETA PROZESUA DISEINATZEA ETA PROBAK BALORATZEA:

1. FASEA: GAITASUN TEKNIKOA ETA ESPERIENTZIA.

1.1- GAITASUN TEKNIKOAK (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Baldintza: Administrazio edo teknikari arloetako goi-mailako Lanbide Heziketaren edo Unibertsitate Graduaren titulua.

Puntuazioa: nahitaezko baldintza baztertzaila

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta

Baldintza: Euskarako B2 maila.

Puntuazioa: nahitaezko baldintza baztertzaila

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua edo egiaztatze proba espezifiko aurkeztuta

Baldintza: 5 urtetik gorako esperientzia profesionala honako ingurune hauetako batean edo batzuetan:

- programazioa (Python, Powershell, Bash edo antzekoak)
- datu-baseak (datu-base erlazionalak kudeatzeko sistemak (SQL))
- sistemen administrazioa (Windows inguruneak, Linux eta serbitzariak) eta sareak (protokoloak eta sare-gailuen konfigurazioa).

Puntuazioa: nahitaezko baldintza baztertzaila

Egiaztapena: CV bidez, azalpen-xehetasuna II. eranskinean, eduki profesionalen zinpeko aitortpena (formatu librea) eta lan-bizitza eguneratua.

1.2.- ESPERIENTZIA. (Gehienez 20 puntu).

Baldintza: 8 urtetik gorako esperientzia, edozein enpresa motatan, lehen oinarrian adierazten diren lanpostuaren berezko zereginetan.

Puntuazioa: 10 puntu

Egiaztapena: CV-a, eduki profesionalen zinpeko adierazpena (formatu librea) eta lan bizitza eguneratua aurkeztuta.

Baldintza: 8 urte baino gehiagoko lan esperientzia izatea, honako ingurune hauetako batean edo batzuetan:

- programazioa (Python, Powershell, Bash edo antzekoak)
- datu-baseak (datu-base erlazionalak kudeatzeko sistemak (SQL))
- sistemen administrazioa (Windows inguruneak, Linux eta serbitzariak) eta sareak (protokoloak eta sare-gailuen konfigurazioa).

Puntuazioa: 10 puntu.

Egiaztapena: CV-a, eduki profesionalen zinpeko adierazpena (formatu librea) eta lan bizitza eguneratua aurkeztuta.

1.3- LANPOSTUAREN ZEREGIN ESPEZIFIKOEI BURUZKO PRESTAKUNTZA (gehienez, 30 puntu)

Baldintza: administrazio eginkizunei (IT prestakuntza, jendearentzako arreta, dokumentu kudeaketa eta antzekoak barne) lotutako ikastaroak, 30 orduetik 60 ordura bitartekoak (biak barne)

Puntuazioa: 5 puntu.

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta

Baldintza: administrazio eginkizunei (IT prestakuntza, jendearentzako arreta, dokumentu kudeaketa eta antzekoak barne) lotutako ikastaroak, 60 orduetik 100 ordura bitartekoak (biak barne)

Puntuazioa: 8 puntu.

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta

Baldintza: administrazio eginkizunei (IT prestakuntza, jendearentzako arreta, dokumentu kudeaketa eta antzekoak barne) lotutako ikastaroak, 100 ordu edo gehiagokoak.

Puntuazioa: 10 puntu.

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta

2. FASEA: HIZKUNTZAK. (Gehienez 5 puntu)

2.1- INGELESA

Eskakizuna, balioestekoa:B2/C1

Puntuazioa: 2 puntu

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta.

2.1- EUSKARA

Eskakizuna, balioestekoa:C1/C2

Puntuazioa: 3 puntu

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO ARIKETA PSIKOMETRIKOA

■ Oficinas: C/ Vicente Goikoetxea nº 1 – 1º Oficina 4 - 01008 Vitoria-Gasteiz · Tel: 945 13 46 90 · Fax: 945 77 45 59 ■

■ Domicilio Fiscal: Plaza de la Provincia, s/n - 01001 Vitoria-Gasteiz · Tel: 945 18 18 18 ■

VÍAS DE ÁLAVA, S.A. C.I.F.: A-01361237 REGISTRO DE ÁLAVA, TOMO 1121, FOLIO 106, HOJA Nº VI-9741, INSCRIPCIÓN 1ª

- **Nahitaezkoa eta baztertzaila (GAI – EZ GAI).**
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorra kontuan hartuta puntuaziorik onena lortu duten 4 izangaiei egingo zaie proba.
- Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilerara eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzeko.
- QUALIS CONSULTORES DE TALENTO, S.L. sozietateak txosten oso bat egingo du, 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei elkarrizketa egin ostean.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute Arabako Bideak sozietatean, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (geh. 45 puntu)

- Nahitaezkoa da.
- 1. eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsonari eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Aipatutako elkarrizketa hautaketako epaimahaikideek egingo dute, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak. Elkarrizketa bat baino gehiago egin ahal izango da, hautaketa organoak hala erabakitzen badu.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun eta ezagutza hauek baloratuko dira:
 - Komunikazio trebetasunak.
 - Enpatia.
 - Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna.
 - Antolatzeko gaitasuna.
 - Talde lana.
 - Ekimena.
 - Aldaketara irekitzea.
 - Lanerako motibazioa eta inplikazioa.
 - Arazo teknikoak ebaztea: hardware eta softwareko arazo errazak diagnostikatzeko eta konpontzeko gaitasuna.
- Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:
 - Ez du gaitasunik: puntu 1.
 - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 2 puntu
 - Gaitasuna garatze fasean du: 3 puntu.
 - Gaitasun maila aurreratua du: 4 puntu
 - Gaitasun maila bikaina du: 5 puntu
- Elkarrizketa pertsonalean baloratutako gaitasunen baturan 25 puntu lortzea ezartzen da gutxieneko atalase gisa. Puntuazio hori lortzen ez bada, izangaia prozesutik kanpo geratuko da. Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
50	5	EZ GAI/GAI	45	100